# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 3471

*EBAZPENA, 2015eko uztailaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena. Ebazpen honen bidez, handitu egiten da Ulibarri programan dauden itunpeko ikastetxe pribatuentzat 2015-2016 ikasturterako eginiko diru-laguntzen deialdirako bideratu den zenbateko globala.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko martxoaren 4ko aginduak finkatzen du zein den Ulibarri programaren 2015-2016 ikasturterako diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa, zeintzuk diren programan sartzeko edo jarraitzeko betekizunak eta zeintzuk izango diren ikastetxe bakoitzaren ordu-dedikazioa finkatzeko irizpideak (2015-03-06ko EHAA). Zehazki, agindu horren 5. artikuluan adierazten da deialdirako gehienezko zenbatekoa 1.000.000 eurokoa izango dela, eta orobat jakinarazten da gehienezko zenbatekoa gehitu egin ahal izango dela, eskatutako diru-laguntza guztien zenbatekoa kontuan hartuz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren bestelako diru-laguntza programetan agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera; betiere, diru-laguntzen ebazpena eman aurretik.

Laguntzen deialdi hori ebazteak sortzen dituen behar ekonomikoak kontuan hartuta, eta 2015eko martxoaren 4ko Aginduaren 1. artikulua betez (2015-03-06ko EHAA), hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Aipatutako laguntzen deialdiaren hasierako diru-zenbatekoa aldatzea eta zenbateko horri 23.400 euro gehitzea.

Bigarren artikulua.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 10a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.